

# Prensa oharra

## Nota de prensa



### **Tokiko Gobernu Batzordeak onartu dituen gaiak**

*Arteleku plaza, Otorduak, Uba aterpetxea, Gabona zuretzat*

#### **Arteleku plaza**

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Txomin eneako Arteleku plaza egiteko proiektua onartzen da, Joaquim Mulá Montsenyk idatzitakoa. Proiektu honek 1.741.384 euroko aurrekontua du.

2017. urtearen amaieran, Hirigintza Sailak ideia-lehiaketa bat deitu eta egin zuen Txomin Eneako ekipamendu-etxadiaren eraldaketa baloratzeko, gerora Txomin Eneako Arteleku plazaren egikaritze-proiektua idazteko oinarri izan zedin.

Idea-lehiaketako proiektuak aurkeztu ondoren, Udaleko Hirigintza Zuzendaritzak herritarrek parte hartzeko jardunaldiak antolatu zituen, lehiaketara aurkeztu ziren 14 proiektuak aztertzeko. Parte hartze prozesua proiektua idazteko lehiaketaren deialdirako erabili zen eta plegua egiteko oinarria izan zen.

#### **Otorduak**

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Intxaurrendoko gizarte zerbitzuen zentroan gizarte-bazterketa egoera larrian dauden pertsonen eta familien zuzendutako OTORDUAK programarako janaria prestatzeko eta entregatzeko zerbitzua, Gizarte Ekimeneko Zentro Bereziei eta Lanerako Zentroi gordetakoa” xede duen kontratazio espedientea.

Kontratuaren xedea da egunean gutxi gorabehera (beharren arabera) 25 menu prestatzea eta ematea, plater bakoitza modu indibidualean ontziratuta, boluntarioek gizarte bazterketa egoera larrian diren pertsonen/familien artean bana ditzaten. Pertsona eta familia horiek Intxaurrendoko Gizarte Zerbitzuguneen kasu arduradunek hautatukoak izango dira.

Platerka ontziratzen den banakako menuaren presioa 4,73 eurokoa da, eta Aurreikusitako gehienezko aurrekontua 43.161 eurokoa. Kontratua gauzatzeko epea 2 urtekoa da kontratua formalizatzen denetik, urtebeteko iraupena izango duten bi balizko luzapenekin.

#### **UBA aterpetxea**

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du UBA Aterpetxeko esparruak erabiltzeko doako lagapena, Donostiako Sustapenak eginda, sozietate horretako kudeatzaileak 2020ko azaroaren 23an hartutako erabakian ezarritako baldintzetan.

#### **Gabonak zuretzat**

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Gabonak zuretzat argazki-lehiaketa egitea eta argazki-lehiaketako parte hartzeko oinarriak eta deialdia egitea.

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



Deialdi honen helburu nagusia gazteen parte-hartzea sustatzea, gabonetan aisialdirako eskaintza handitzea eta dibertsifikatzea eta sormena sustatzea da. Era berean, diziplina artistikoarekiko ezagutza eta zaletasuna sustatu nahi ditu.

Lehiaketa honetan 14 eta 30 urte bitarteko edozein gaztek parte hartu ahal izango du lehiakide edo boto-emaila gisa. Argazkiak 2020ko abenduaren 21etik 2021eko urtarrilaren 6ra bitartean igo beharko dira Instagramera, Irabazleak urtarrilaren 13an jakinaraziko dira.

*Donostia, 2020ko abenduak 15*